

### EUSKERAZKO ERA BATZUK

Dakazan gramatika oar batzuketik B. M. Garro-k Aita L. Villasante-ri egin zion karta bat argitaratzen degu. Izan bedi lendabizikoaren gomutaz.

"Bernardo M.<sup>a</sup> Garro. / Buenos Aires, 13. / Bilbao.

1957'gnko. zezeillak 1.

Aita Villasante Kortabitarte'ri. / Arantzazu'n.

Agur, Aita gurgarri orreri:

Ezerezkeri bat baño ez nayoatsu esaten, baña leenago mesede bat eskatu gura deusut: "Arantzazu" aldizkariak ekarri ei dau or euskaltzaleak egin genduan batzarraren barri, eta emen erosteko aukerarik ez dodanez, bialduko al zeunskit iyekiren bat? Eskerrak aurretiaz. Eta Aita Donostia'ren liburu barriari, nik or bazkal-ostean Gernika'ko erregelakaz esan nebana gayeztuta ikusten dodanez, ba-leiteke alakoren baten, umorea dodanean eta gomuteak utsik egiten ez be'deust, gitxi-gora-beera paperean imintea, eta bialduko neuskitzu, gomutagarritzat baño ez pa'da bere. Ona emen, orain ezerezkeria:

#### "Ez-baiña" gipuzkeraz (?) - Bizkayeraz, "barik"

Arantzazu'ko Andra-Mariaren aurtengo egutegiko Urtarrilla 25'garrenari dagokion orrialde atzean "Munduan zear..." izenburutzat dauan irakurgaitxoan, auxe ikusten dot idatzita: "Papelezkoak ez-baiña, egurrezkoak dira, pergaminoz yosiak". Nik, beintzat, eta nik legez beste askok Bizkayan, esakuna ori onetara idatzi izango genduan: **Papelezkoak barik egurrezkoak dira, pergaminoz yosiak.**

"Ez-baiña" txarto dagoanik ez dot onegaz esan gura. Orixen Meza-Liburuan txitean-pitean ikusten da esakuna ori; ain zuzen bere lengo igandeko Irakurgaiari, 130'gn. orrialdean, 9'gn lerroan: "Gaizpean ezi ez-baiña, ezi gaitza on-azpian". Eta 131'gn. orrialdean, Eskeintzean: "...il ez-baiña bizi egingo naiz".

Barrero dñot, ez deusadala esakuna orreri, or, Gipuzkoan esanda, akatsik topa gura. Orixek ondo daki Gipuzkoa'ko barri, eta ain sarri idazten dauan ezkeror, orretara erabilli izango dabe atae orretan, aurki. Baña, bizkaitarrori txoka egiten yaku, eta ba-deritxagu gure "barik" ordeazkoa baizen yator eta indartsu ez danik, geyenentsuetan, batez bere izenen edo adverbioen ostean. Atara ekanduta gagozelako-edo, bear bada. Guk, bizkaitarrok, "bearrean"-en ordeaz erabilten dogu, onetara:

a) **Ura barik ardaua edan dau**, "ura edan bearrean ardaua edan dau"-en ordeaz. Eta oartu, "ura"-ri "a" artikulua kendu ezkeror beste esangura bat daukola: **Ur barik edan dau ardaua** (ha bebido el vino sin agua).

b) **Diruak barik zorrak ekarri dauz Ameriketatik**, "diruak ekarri bearrean zorrak ekarri dauz Ameriketatik"-en ordeaz.

c) **Niri barik eure aitari esaiok ori**, "niri esan bearrean e. a".

d) **Treanean barik zoaz autobusean**, "treanean yoan bearrean e. a."

Aditzak bi diranean bere erabilten da:

e) **Aza barik yan egin dauz katuak kumak.**

f) **Irakatsi barik astotu egiten dituz umeak irakasle orrek,** baña onakoetan, "ez-baña"-ri jatorragoa deritxat. Orraitiño, nik neuk, aditzak bi diranean "bearrean" idatziko neuke beti, argiago dagoalako eta ulerterrezago. "Azi bearrean yan egin dauz...", eta "Irakatsi bearrean astotu..."-k bestela emoten dabe e) eta f) -ren aldean. Argitasuna bear da beti, **idazten dauan-arentzako barik, irakurten dauanarentzat.** Ona orain beste esangura bereizidunak:

Batek ba-diño: **Paixan ei daki gizon orrek, oyez?** Erantzunak:

g) **Paixan barik, yosten daki ederto,** "Paixan (puntoa egiten) ez; yosten daki ederto".

h) **Paixan barik be, yosten daki ederto,** "Paixan ba-daki, bai baña yosten obeto, ederto".

i) **Paixan barik be, yosten be ederto daki,** "Paixan eta yosten, biyetara daki ederto".

Edo-ta: **Ameriketatik gizon etorribarria tximinoitan ei dabil.** Erantzunak:

2-g) **Tximinoitan barik, soloan egiten dau bear,** "Ez dabil tximinoitan; soloan egiten dau bear".

2-h) **Tximinoitan barik be, soloan egiten dau bear,** "Bai, ekiten deutso tximinoitan (a por jibiones); baña soloan egiten dau bear geyenetan".

2-i) **Tximinoitan barik be, soloan be egiten dau bear,** "Biyetara ekiten deutso, tximinoitan eta soloan".

Beste eratxu bat: Batek: **Egurretan zoaz basora, ala?** Erantzunak:

j) **Egurretan barik, beste zeregin askorik be ba-daukat basoan,** "Ez, ez noa egurretan"-edo, ez uste egurretan baño ez nintekeala basora yoan- "beste zeregin askorik... eta abar".

"Barik" ori beste era onetara erabilten dogun berbera ete da?:

k) **Eutsi guardasola, busti barik,** "...busti ez zaitzezan"-en ordez.

l) **Kontuz, laprast egin barik!** "...laprast egin ez dagizun".

Eta arako bermeotarren erderakadea aterraldi baten bilbotar batzuk guardasolpean yoiazale ikustean: **Sin mojar, después!**

m) **Busti barik, gero!** esan gurarik, edo erderaz burlazar esango eukeena: "No os vayais a mojar".

Eta k), l), m) gogoan doguzala aztertu daigun orain Orixe-ren: "Gaizpean ezi ez-baña, ezi gaitza on-azpian".

Gerkerea eta latiña ez dakigunentzat illun samarra da, eta ondo bizkayeratuteko lorrak dituguz. Ain zuzen be, ara latiñez e. a.:

"Noli vinci a malo, sed vince in bono malum" (Latiñez).

"Ez ezi gaizpean; ezi, ordea, gaitza on-azpian" (Olabide).

"Be not overcome by evil, but overcome evil by good" (Ingeleseaz).

"No te debes vencer del mal; mas vence el mal con el bien" (erd.).

Eta emen bizkayerazko "barik" imini ezker: **Gaizpean ezi barik, ezi gaitza on-azpian,** ba-deritxat: "Gaitzak (azpian) ezi ez zagizan, ezi zeuk gai-

tza on-azpian", edo "Para que no te dejes vencer del mal", esan gura izango leukeala, eta onakoetan, len esan dodana, nik neuk, "Gaizpean ezi bearrean", esango neuke bizkayeraz.

Eta onenbestegaz naikoa eta lar bere ba-da. Ezerezkera da, bear bada, baña tamala artzean dot bizkayeraz idaztean, nora-ezdirala, gipuzkerako esakunak erabilteaz, jakin-ezagaitik, aurki.

Parkatu alamera emon ba'deutsut eta agindu Jainkoagan,

**Garro'tar B. M.ri."**

### ESTUDIOS DE BACHILLERATO REALIZADOS POR RESURRECCION M.<sup>a</sup> DE AZKUE

D. Mario Grande Ramos, Catedrático y Director del Instituto Nacional de Enseñanza Media (Masculino) de Bilbao,

HACE CONSTAR:

Que en el Archivo del Centro se custodia el expediente académico número 34, Ag<sup>a</sup> del Instituto Vizcaino, que transcrito literalmente dice así:

"Instituto Vizcaino. N.º 34, Ag<sup>a</sup>.

Expediente del alumno Ascue y Aberásturi. D. Resurrección, natural de Lequeitio, provincia de Vizcaya.

Cursos	Asignaturas	Exámenes	
		Ordinarios	Extraordinarios
1876-77 Escuela de Náutica. Lequeitio	{ Examen de Ingreso Aritmética-Algebra Geografía 1.º Curso Dibujo Lineal	Aprobado	
		Sobresaliente	
		Sobresaliente	
		Aprobado	
1877-78 Id.	{ Geometría y Trigonometría Geografía 2.º curso Dibujo Geográfico	Notable	
		Sobresaliente	
		Aprobado	
1878-79 Bilbao	{ Latín y Castellano 1.º curso Historia Universal	No presentado	Notable
		No presentado	Suspensio